Sorkuntza-tailerrak, estiloen arabera I

Kurtsoa: 1

Kreditu kop.: 6

Deskribatzaileak:

- Sorkuntza-gaitasunak garatzea, ikaslearen hizkuntza pertsonala barneratzea ahalbidetzen duten sorkuntza-moldeen bilaketaren eta esperimentazioaren bidez.
- Konposizio koreografikoen funts teknikoen ezagutza eta praktika: gaia, denbora, espazioa, mugimendua eta hizkuntza.
- Koreografoen sorkuntza-prozesuaren oinarrizko alderdiak ezagutzea, zeinek estilo hautatuaren, gorputzaren eta mugimenduaren araberako dantzaren hizkuntza erabiltzen baitute euren diskurtso formalean.
- Koreografoaren eta dantzariaren papera lanaren sorkuntza-prozesuan.

Oharrak: Sorkuntza-tailerrak, estiloen arabera I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

Konpetentziak:

- Pertsonak gidatzeko gaitasuna izatea, haien sorkuntza-, prestakuntza- edo interpretazio-prozesuan, behar diren ezagutzak, baliabideak eta esperientziak izanik.
- Oinarrizko teknikak eta metodologiak ezagutzea lehenengo ikerketa-jarduerak garatzeko.
- Norbanakoaren berariazko ezaugarriak ulertzeko gaitasuna garatzea, haren interpretazioa eta sorkuntza-lana optimizatu ahal izateko.